

Nekez ahantziko den asteburua

NEGU GORRIAK-EN AGURRA. Taldeak 28.000 lagun bildu zituen iragan asteburuan, Donostian eta Baionan egindako hiru kontzertuetan. Erreibindikazioak eta festak bat egin zuten boskotearen azken agerraldietan




GARI GARAIALDE

BOSKOTEAREN AGURRA. Igandeko kontzertua amaitu ondoren Negu Gorriak-eko partaideek betirako agurtu zituzten ikusleak.

Garbiñe Olaizola | DONOSTIA

Negu Gorriak taldeak bere leienda handitu zuen joan den asteburuko azken hiru kontzertuekin. Igande gauean, berriro Donostiako Anoetako belodromoa gainezka zegoela, *Hator hator* kantuen doinuak amatatzearekin batera euskal rockaren historia txikiko beste orrialde bat idatzita utzi zuen taldeak, aurrekoak bezain lorjosa.

Baionan eta Donostian bildutako 28.000 laguneroimenen nekez ezabatuko dira hiru kontzertuetan bizitakoak. Aurretik igarri zitekeen zerbaite handia izango zela taldearen berragerpena, jendearen erantzuna ikaragarria izan baitzen, baina taldeak bost urteko etelaldiaren agertuko zuen sasoia inkognita bat zen. Berehala uxatu zuen, ordea. Ikusleak erakartzeko duen ahalmena berriro agerian uzteaz gain, Euskal Herrian inoiz izan den zuzeneko rock bandarik indartsuena berretsi zuen boskoteak.



GARI GARAIALDE

SELEKTAH KOLEKTIBOA. Hiru kontzertuei hasiera emateko eta giroa berotzeko ardura Selektah Kolektiboak izan zuen.




EGUNKARIA

OHIKO INDARRAREKIN. Fermin Muguruzak eta taldekideek betiko indarta agertu zuten. Argazkian, Izaskun Forkadarekin.



GARI GARAIALDE

ERREIBINDIKAZIOA. Emanaldi guztietan erreibindikaziorako tartea izan zen. Argazkian, presoen senideak taula gainean.



GARI GARAIALDE

JOSEBA TAPIA, GONBIDATUA. Joseba Tapia trikitilaria gonbidatuetako bat izan zen. Gora Herria kanturekin, agertokia banderez josi zen.

Euskal Herriatik ez ezik, Kataluniatik, Espainiatik, Frantziatik eta Alemaniatik etorritako jendea Negu Gorriak-en agurraren lekuko izan zen. Aspaldiko zaletuak eta jarraitzaile gazteak nahastu ziren. Agertokian zein harmailetan emozioa eta berotasuna izan ziren nagusi. Ez zen erreibindikaziorik falta izan. Era guztietako banderak, ikurrak eta oihuak ikus eta entzun ziren.

Baina guztiaren gainetik, musika izan zen protagonista. *Lehenbiziko bala, Hitz egin, Aizu, Zu atrapatu arte, Kolore bizia...* Guztiara hogeita hamar kantu izan ziren. Igandeko kontzertuetan ondoren, Anoetako belodromotik Oiartzungo Pagoa aretora igaro zen festa goizaldea arte.